

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

ANIMALIEN ELIKADURA


2015eko BIGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenak sailkatzea
Jakinarazpenen jatorria
Jakinarazitako arriskuen tipologia
Tartean dauden lehengai eta pentsuak
Laburpen-taula

JAKINARAZPENAK SAILKATZEA

2015eko bigarren lauhilekoan, animalien elikagaiei buruzko **59 jakinarazpen egin dira**. Horietatik **5 alertak** izan dira, **45 informazio-jakinarazpenak eta 9 mugan egin diren ukapenak**.

Egindako kontrol-motari dagokionez, **13 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte, **32** pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **Kontrol Ofizialek**, **13 autokontrolatan atzeman dira** eta industriak berak igorri ditu. Azkenik, **kasu bat bezero baten erreklamazioak eragin du**.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **59 jakinarazpen horietatik 22** (% 37) beste herrialde batekoak izan dira. Jakinarazpen gehien herrialde hauek egin dituzte: **6 Gambiak eta 3 Txinak**.

Gambiar dagokionez, jakinarazpenak, batik bat, honako hauekin daude lotuta: **B1 aflatoxina txorientzako kakahueteetan**.


Europako herrialdeei dagokienez, berriz, **Espania (7)** izan da jakinarazpenekin lotutako produktu gehien **jatorrizko herrialdea**, eta jarraian **Frantzia (5)**.

Jakinarazpen gehien egin dituen herrialdea **Italia** izan da: guztira **10** egin ditu. Italiaren ondoren, **Belgikak (9)**, **Alemaniak (7)** eta **Erresuma Batuak (7)** egin dituzte gehien.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte horretan atzemandako arrisku gehienak mikrobiologikoak izan dira (**% 34**). **PAEak jakinarazpenen % 17 eragin dituzte eta mikotoxinek % 15.**

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehienak (20 jakinarazpenetatik 18). Salmonella antzeman den lehengaien artean animalien proteina prozesatuak nabarmendu behar dira.



TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuka, **lehengai**ei dagozkie jasotako jakinarazpenen **% 70**, **loditzeko animalientzako** pentsu konposatuei **% 15** eta **laguntza-animalientzako** pentsu eta produktuei **% 8** eta **gehigarri eta aurre-nahasketei % 7.**

Jakinazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira hurrenkera honetan: **arrain-irina (4)**, **kakahueteak (8)** eta **animalia-jatorriko proteina prozesatuak (8).**

Halaber, nabarmentzekoak dira **akuikulturarako pentsuetan animalia-jatorriko proteina baimendu gabeen presentziak eragindako jakinarazpenak (6).**



AURREKO LAUHILEKOAREKIN ALDERATZEA

- 2015eko bigarren lauhilekoan 59 jakinarazpen egin dira, eta 2015eko lehenengo lauhilekoan, berriz, 66 jakinarazpen.
- Eginiko kontrol motari dagokionez, aipatzekoa da jatorria **merkatuko kontrol ofizialetan** duten jakinarazpenen kopuruaren gorakada (% **43etik % 454ra**). Halaber, kopuru berberari eutsi diote autokontrolatuko jakinarazpenek eta Mugako Portuek atzemandakoek (% 22 mota bakoitzeko).
- Bigarren lauhileko honetan, jakinarazpenen % 37ren jatorria hirugarren herrialde batean egon da (2015eko lehenengo lauhilekoan % 38 izan zen). Jakinarazpen gehienetan, tartean egon den produktua Europar Batasuneko herrialdeetan sortu da.
- Jakinarazitako arriskuen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da **akuikulturarako pentsuetan animalia-jatorriko proteina baimendu gabeen presentziak eragindako jakinarazpenen igoera (6)**. Beste alde batetik aipatzekoa da 2015eko lehenengo zein bigarren lauhilekoan, ez dela jakinarazpenik egin **pentsuetarako lehengaietan genetikoki eraldatutako material baimendu gabeen presentzia** dela eta.

Eranskina. RASFFren bidez 2015eko 2. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	16	Hegazti-irina	1	<i>Salmonella enteritidis</i>
			Arto-glutena	1	<i>Salmonella infantis</i> , <i>Salmonella Rissen</i>
			Koltza-irina	2	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Ekilore-irina	2	<i>Salmonella Coeln</i>
			Eraldatutako animalia-proteina	1	<i>Salmonella spp.</i>
				1	<i>Salmonella Derby</i>
				2	<i>Salmonella Infantis</i>
			Arrain-irina	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
				1	<i>Salmonella Lexington</i>
			Soja-irina	1	<i>Salmonella Infantis</i>
Txakurrentzako mastekagarriak	1	<i>Salmonella London</i> , <i>Salmonella Newport</i>			
	1	<i>Salmonella typhimurium</i>			
Koltza-taloa	1	<i>Salmonella Lexington</i>			

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella + enterobacteriaceae	2	PAPak	1	<i>Salmonella spp.</i> + enterobacteriaceae
			Haragi-irina	1	<i>Salmonella anatum</i> , <i>Salmonella Rissen</i> , <i>Salmonella spp.</i> , <i>Salmonella typhimurium</i> , + Enterobakterioak
	Enterobacteriaceae	1	Loroentzako pentsua	1	
	<i>Bacillus cereus</i> + bakterio-kopuru handia	1	Bakterio-jatorriko proteina (<i>Corynebacterium glutamicum</i>)	1	

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.
Mikotoxinak	B1 Aflatoxina	8	Kakahueteak	6
			Artoa	1
			Kotoi-hazia	1
	Zearalenona	1	Arto-glutena	1
Dioxinak	Dioxinak	6	Leonardita	1
			Belar bedekatuaren aterakina	1
			Arrain-olioa	1
			Animalia-jatorriko gantza	1
			Sagarraren azpiproduktuak	1
			Ekilore-olioa	1
Metal astunak	Artsenikoa	1	Manganeso-oxidoa	1
	Kadmioa	1	Txakurrentzako pentsua	1
	Merkurioa	2	Arrain-irina	1
			Erremolatxa-mamia	1
PAEak	PATak	10	Akuikulturarako pentsu konposatuak	6
			PAPak	3
			Pentsu konposatua	1
Beste batzuk	<i>Ambrosia spp.</i> -ren presentzia	1	Ekilore-haziak	1
	Gorputz arrotzen kutsadura (igel hila)	1	Akuriertzako pentsua	1
	Dieselak eragindako kutsadura	1	Erremolatxa-pelletak	1
	Pestizidaren presentzia (antrakina)	1	Erremolatxa-mamia	1
	Pestizidaren presentzia (deltametrina)	1	Soja-irina	1
	Pestizidaren presentzia (hexaklorobentzenoa)	1	Arrain-irina	1
	Kloranfenikolaren presentzia	3	Galeperrentzako pentsua	2
			Pentsu minerala	1
Enrofloxazinaren presentzia	1	Gantxigorra	1	